

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Telefónica enpresak Nafarroako informazioaren gizartea garatzeko duen konpromisoa berretsi du

*Horixe jakinarazi dio Telefónica España enpresaren lehendakariak
Barcina Lehendakariari Nafarroako Jauregian egin duten bileran*

Martes, 26 de junio de 2012

Luis Miguel Gilpérez Telefónica España enpresako lehendakariak Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakariari jakinarazi dio enpresak Foru Komunitateko informazioaren gizartea garatzeko konpromisoa duela. Telefónica enpresak aurreikusi duenez, azken ekitaldietan Nafarroan izandako inbertsioen erritmoari eutsiko dio, batez ere banda zabal finkoaren eta mugikorraren garapenean.



Barcina Lehendakaria eta Luis Miguel Gilpérez.

Gilpérez jaunak esan duenez, "Nafarroa digitala'ren garapenak Foru Komunitateko enpresen sarearen lehiakortasunari bultzada emango dio". Horixe jakinarazi dio Luis Miguel Gilpérez Telefónica España enpresaren lehendakariak Barcina Lehendakariari biek Nafarroako Jauregian egin duten bileran.

Horren aurretik, enpresako zuzendariak eta Javier Morrás Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak Informazioaren Gizarteari buruzko txostena aurkeztu dute Baluartean. Txostenak enpresen eta, oro har, gizartearen Interneteko erabilerari buruzko datuak jasotzen ditu.

Azterlanaren arabera, Nafarroako familien % 66k Interneterako sarbidea du (estatuko batez bestekoa baino hiru puntu gehiago), eta horien % 94k banda zabala erabiltzen du. Gainera, 10 eta 15 urte arteko gazteen % 95 sarean sartzen da; estatuko batez bestekoa % 87 da. Internet, gehienbat, sarean erostetak egiteko erabiltzen da (% 54), baita hezkuntza- eta trebakuntza- gaietarako ere (% 65).

Enpresen alorrean, Nafarroako enpresen % 99k Interneterako sarbidea du. Espainiako adierazlerik altuena da. Horrez gain, enpresen % 76k sinadura digitala erabiltzen du. Enpresek e-Administrazioa erabiltzeari dagokionez, Nafarroako adierazleek estatuko batez bestekoa gaintitzen dute. % 83k inprimaki ofizialak deskargatzen ditu, % 74k betetako inprimakiak bidaltzen ditu eta % 78k administrazioaren web-orrietako informazioa eskuratzen du.